



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko maiatzaren 26a

76. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, Nafarroako airearen kalitateari, kutsadura guneei eta arnasten dugun airea –bereziki, Erriberan– hobetzeko plan, proiektu eta neurriei dagokienez Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan, jakiteko zertan diren hertsadura-teknikak Nafarroako Foru Komunitatean halakoak erabiltzen dituzten zentroetan. María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da langileen eskubideak urratzen dituzten iruzurrezko jokabideen aurka borrokatu dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontratazio publikoaren jarraipenerako talde bat sor dezan, kontratu publikoak behar bezala betetzen direla zaintzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak kultur aniztasuna gure gizartearen ondarea dela aitortzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Sustapen Ministerioa eta Renfe eta Adif enpresak premiatzen dira Tafallako tren geltokian arreta pertsonalizatuko zerbitzua mantentzeko eta zerbitzu guztien hobekuntza plan bat abian jar dezaten, eta Nafarroako Gobernua, berriz, Estatuarekin negoziatu dezan Tafallako geltokiko tren zerbitzuak mantentzea eta hobetzea. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Javier Valdez kazetariaren erailketa gaitzesten baitu, Sinaloan gertatua. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitie Nafarroako kirol kudeaketaren arloko langileei. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuiorik bipil eta erabatekoena adierazten baitu EAJren Altsasuko egoitzan agertutako pintaketak direla-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu Manchesterren maiatzaren 22an –astelehena– izandako gertakariak. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Erriberarako airearen kalitatearen plan bat egiteari begira Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak darabilen aurreikuspenari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (12. or.).
- Galdera, “beren gain jartzea” neurrirako laguntzen 2016ko deialditik kanpo gelditu diren nekazari gazteei buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (13. or.).
- Galdera, errepide-obra berria hasteari dagokionez Gobernuak darabilen aurreikuspenari eta Nafarroako Errepide Plan berri bat egiteari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, atal- eta bulego-burutzak izendatzeko irizpideei buruzkoa. Sergio Sayas López jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, larrialdietako R1-ek laguntza-zerbitzua mediku ondokoak balira bezala emateari buruzkoa. Sergio Sayas López jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroan trenbide-azpiegitura hobetzeari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, María Forcada Fundazio publiko-pribatuaren finantzaketarako Nafarroako Gobernuak darabil-tzan finantzaketa publikoko bideei buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Braille sisteman editatutako funtsak areagotzeari dagokionez Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak egindako jarduketei buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak zer egiten ari den Orreagako Kolegiataren lana errazteko eta bertako ostatuaren arazoa konpontzeko. Guzmán Garmendia Pérez jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Nafarroan kirol kudeaketaren arloko langileek bizi duten gatazkari buruzkoa. Guzmán Garmendia Pérez jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, jakitekoa zer esan nahi duen Hezkuntzako kontseilariak galdera parlamentario bati erantzutean adierazten duenean espresuki aipatzen duela emandako informazioari buruz hartzaileak isilpekotasuna gorde behar duela eta bakar-bakarrik eginkizun parlamentarioan erabil dezakeela. Alberto Catalán Higuerras jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, eremu ez-euskaldunean D ereduan matrikulatzeari buruz informatzeko xedez ikastetxeetan egindako bileretan parte hartu duten pertsonen buruzkoa. Alberto Catalán Higuerras jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Soria-Castejón trenbide-tartea berrirekitzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuerras jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Tulebrasko eta Barillasko ikasleen garraioari buruzkoa. Alberto Catalán Higuerras jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, Secretariado Gitano Fundazioak ijitoen herriaren historia eta kultura hezkuntza-curriculumean jasoa izan dadin proposatutako ekimenari buruzkoa. Alberto Catalán Higuerras jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa daukatela frogatzen ez duten irakasleak bitartekoen zerrendetatik kanporatzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuerras jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, lan-prekarietatea eta ezbehar-tasa murrizte aldera Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak hartutako neurriei buruzkoa. Galdera erretiratzea (23. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Foru parlamentarien eta Parlamentuaren zerbitzuko langileen bizi- eta istripu-aseguruak kontratatze aldera Nafarroako Parlamentuak ordaindutako diru-kopuruen tributazioa (24. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, Nafarroako airearen kalitateari, kutsadura guneei eta arnasten dugun airea –bereziki, Erriberan– hobetzeko plan, proiektu eta neurriei dagokienez Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako airearen kalitateari, kutsadura guneei eta arnasten dugun airea –bereziki, Erriberan– hobetzeko plan, proiektu eta neurriei dagokienez Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentarioko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariari:

Airearen kalitatea hobetzea eta CO₂ emisioak murriztea dira egungo gizarteak aurre egin beharreko erronkak. Gasen eta partikula txikien gama handi bat atmosferara isurtzeak arnasten dugun airearen kalitateari eragiten dio; horrenbestez, gure osasunari eta ekosistemen osasunari ere bai. Begi-bistakoa da politika eraginkorrek ezarri beharra dagoela gizakion osasuna eta ekosistemak babesteko; hartara, airearen kalitatea hobetu

beharra dago, kutsagaien emisioak murrizteko beste politika batzuk ezarri bidenabar, klima-aldaketa mugatzeko; hortaz, airearen kalitatea hobetzen den neurrian, aurrerabidea eginen da klima-aldaketaren aurkako borrokan.

Airearen kalitateari dagokionez, oso kezka garria da Nafarroan dugun kutsadura-maila handia; bereziki, Tuterako zenbait alderditan eta mendian. Aire giza jarduerak kutsatzen du, atmosferara kutsagaiak isuriz; sarritan, arrisku-maila gaintu eta arnasketa-arazoak sortzen dira, batik bat haurren eta zaharren osasunari kalte egiten diotenak. Horren ondorio dira heriotza- eta gaixotasun-indizeak igotzea, eta asma edo bronkitisa, bihotzekoak eta bestelako gaixotasun kronikoak, biriketakoak eta kardiobaskularrak, agertzen laguntzen du, haurren birika-educieraren garapena kaltetzeaz gain.

Argi dago arnasten dugun airearen kalitate eskasaren arrazoiei eta eragileei ekin behar zaie, kalitate hori hobetzeko. Horregatik, ezinbestekoa da kutsadura gune nagusiak identifikatzea.

Horrenbestez aurkezten dugu interpelazio hau, Nafarroako airearen kalitateari, kutsadura guneei eta arnasten dugun airea hobetzeko plan, proiektu eta neurriei dagokienez Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa; batez ere, Erriberari dagokionez. Izan ere, eskualde horretan atmosferaren kutsadura maila handikoa izatera heltzen da, troposferako ozonoaren legeko mugak gaintuzteraino, eta beste horrenbeste mendialdean, non gaintu egiten baitira OMEK horri buruz emandako gomendioak.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan, jakiteko zertan diren hertsadura-teknikak Nafarroako Foru Komunitatean halakoak erabiltzen dituzten zentroetan.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan, jakiteko zertan diren hertsadura-teknikak Nafarroako Foru Komunitatean halakoak erabiltzen dituzten zentroetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Osasun mentalaren arloa izan beharko litzateke osasun sistema baten jardunaren markatzaile garrantzitsuenetako bat, bai eta, oro har, estatu baten politika publikoena ere. Psikiatriaren erreformak eta, geroago, osasun mental komunitarioaren sustapenak, bilatu zuten giza eskubideak urratzen zituzten zenbait jardunbide instituzional amaiera ematea, osasun mentalaren arloko antolaketa-egituren plangintzaren erdigunean jarriz nahasmendu mentala diagnostikatuta dutenen eskubideak eta duintasuna.

Hala ere, osasun mentalari osasun zerbitzu ezberdinetako osasun programetan garrantzi txikia eman zaionez, aurrekontuen nola arreta politikoa-ren aldetik, ondorioa izan da aurrekontu urriak, profesional-talde osatugabeak eta arreta-sare zati-katu bat dauzkagula.

Laguntza zatikatuak eta baliabideen urritasunak ahalbidetu dute kontrol eta hertsadurako neu-

rietara joz segitzea. Alderdi hori bereziki agerikoa da lotura eta euskailu mekanikoen erabilerari dagokionez.

Berriki jakin dugu "Complexo Hospitalario da Coruña"ko Ospitaleratze Psikiatrikoko Unitatean gertatutakoa. Izan ere, salaketa bat aurkeztu da euskailu mekanikoak aplikatuta zeuzkan paziente bat hil ondoren.

Hertsatze-teknikei heltzerakoan, helburu gisa jarri behar da haiek desagerraraztea, sufrimendu fisiko traumatikoa ekartzen dutelako eta indarkeria era bat izan daitezkeelako, are alde zurririk eza-rritako lotura terapeutikoak ahuldu eta hautsi ahal dituen, halatan errekoerazio-prozesuak arris-kuan jarriz.

Hertsatze-teknikak desagerraraztearen aldeko diskurtsoak giza eskubideen errespetuan oinarrituta egon behar badu ere, haiek desagerrarazte-koan errealitate batetik abiatu behar dugu, zeinetan behar adina baliabide jarri beharko baitira hertsatze-teknikarik gabeko praktikorako, eta, gainera, uztartuko baita osasun mentalaren arloko arretaren aldeketa batekin, antolaketaren eta kulturaren aldetik.

Zenbait tokitako esperientziak ditugu, erakusten dutenak psikiatriaren praktikan euskailu mekanikoen teknikak kentzeraino nola murriztu. Horren adibide ona dugu Suitzako Ticino kantoian, non abiapuntutzat hartu dituzten honako printzipio hauek: I) euskailuak murrizteko politika publikoei laguntza ematea, II) paziente bakoitzeko profesionalen ratioak areagotzea, III) osasun mentalean dauden taldeak berregituratzea, IV) profesionalak hezte eta trebatzea, eta V) esperientzia pilotuak erabiltzea. Era horretan, lortu zen, 2010etik 2015era bitartean, euskailu mekanikoak bertan behera uztea erabat, eta aldi berean hainbat parametro hobetzea, jardun klinikoarekin, erabiltzaileen segurtasunarekin eta bertako langileen segurtasunarekin zerikusia zutenak.

Euskailu mekanikoei hertsatze-teknika gisa amaiera emate aldera politika publikoetatik ekitea gaur egungo osasun-politikaren arloan oso indarrean dagoen afera da. Horri ekiteko esparru bat badago lehenagotik, hots, desgaitasuna duten pertsonen eskubideen konbentzioa, derrigorrez bete beharko litzatekeena, eta gaur egun zenbait

prestakuntza-agiritan garatzen da, hala nola Osasunaren Mundu Erakundearen "WHO QualityRights guidance and training tools"; zeinak "Core mental health and human rights modules" atalean kapitulu oso bat eskaintzen baitie arretaren arloan euste-eta hertsatze-praktikei amaiera emateko estrategiei.

Azaldutako guztiagatik, eta osasun mentaleko sistema publikoak "Cartagenako manifestua, giza eskubideak errespetatu eta hertsadurarik ez duten osasun mentaleko zerbitzuen alde" bezalako agiriak ezartzen duen ildoari egokitze aldera, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan, ezagutze aldera zertan diren hertsatze-teknikak (bereziki, euskailu mekanikoen teknika), Nafarroako Foru Komunitatean halakoak erabiltzen dituzten zentroetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du estrategia bat ezar dezan Osasun Departamentuaren aldetik, neurri egokiak ezartze aldera honako hauek:

a. Erregistroak ezartzea, loturak edo euskailuak arautzen ez direnetan eta etorkizunari begira haien erabilera ekiditeko neurriak maila ezberdinetan proposaturik.

b. Administrazio maila eskudunei aholku ematea, ospitaleratze-guneak eta profesionalen antolaketa birdiseinatze, halako moduz non

errekuperazio prozesuak errazteko eratu baitira, eta moteltze-neurriak lagunduko baitituzte.

c. Aztertzea profesionalen plantillen kopurua eta osaera, beharrezkoak direnak eusteko teknika-rik gabeko jardun kliniko bat garatu ahal izateko.

d. Estrategia horren helburuak eskuratze aldera Nazioartean jadanik erabili diren jardunen mapa bat egitea, dagoeneko eraginkorrak izan diren neurrien erabilera errazteko.

e. Prestakuntza programa bat garatzea, zeinak bultzatuko baititu pertsona erdigunetzat duten harreman terapeutikorako jokabideak Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren prestakuntza planaren barnean.

f. Erabiltzaileak sartzeari aipatu estrategiaren diseinuan, benetako bideak ezarri parte hartzeari eta kontrolari begira.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prozedura bat ezar dezan hartutako neurriak ebaluatze.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarte Politiketako kontseilariaren apirilaren 25eko 186/2014 Foru Agindua, Hirugarren Adineko eta Desgaitasuneko Egoitzetan loturak erabiltzeko protokoloa onesten duena, ebaluatu eta mozio honetan agertzen diren irizpide eta proposamenetara egokitu dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da langileen eskubideak urratzen dituzten iruzurrezko jokabideen aurka borrokatu dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita langileen eskubideak urratzen dituzten iruzurrezko jokabideen aurka borrokatu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da langileen eskubideak urratzen dituzten iruzurrezko jokabideen aurka borrokatu dezan.

Lan-erreformak lan-merkatuaren aldaketa drastiko bat sendotu du, lan-baldintzetan eta batik bat lan-eskubideetan hamarraldi asko atzera egitea dakarrena. Egia da ziklo berri baten atarian gaudela; izan ere, nolabaiteko susperraldi ekonomikoa bizi dugu eta, ondorioz, enplegua sortzen ari da, baina susperraldi hori finkatuta egotetik urrun dago, horren ifrentzua baita lan-prekarietatea kezagarriro areagotzea.

Datuen arabera, enplegu berria prekariora da, kalitate eskasagokoa, behin-behinekotasun handiagokoa, non kontratuak partzialtasun handiagokoak eta soldatak txikiagoak baitira. Esate baterako, Nafarroan, 2016ko abenduan, sinatutako kontratuen % 5,21 soilik izan ziren mugagabeak. Halaber, aldi baterako enplegu berriaren beste ezaugarrietako bat da langileen sartu-atera gero eta handiagoa dagoela. 2016an, adibidez, lan-kon-

tratuen batez besteko iraupena 34,8 egunekoa izan zen Nafarroan (2007koaren erdia baino gutxiagokoa, orduan 89,8 egunekoa baitzen batez beste).

Bestalde, egunbeteko iraupenera iritsi ez ziren kontratuak 104.453 izan ziren 2016an (iaz sinatutako kontratu guztien ehuneko 29,2); eta mikrokontratu horiei egunbeteko iraupeneko kontratuak gehituz gero, portzentajea % 50 baino handiagoa da.

Krisi garaian, lanaldi partzialeko kontratuak Nafarroan egindako kontratu guztien %28tik %32ra bitarte ibili dira, eta berdintsu eragiten diete aldi baterako langileei nahiz langile finkoei. Partzialtasuna gure lan-merkatuaren egiturazko osagai bat gehiago gisa finkatzen da. 2016an, lanaldi partzialeko langileen kopurua 45.400ekoa zen, halako moldez non nahi gabeko partzialtasuna (lanaldi osoan lan ezin egiteagatik) batez beste % 55ekoa izatera iritsi baitzen. Zifra horiek esan nahi dutena da krisiaren zortzi urte hauetan nahi gabeko lanaldi partzialeko lana biderkatu egin dela, halako bi eta erdi egiteraino.

Krisi ekonomikoak iraun bitartean, enpleguaren kalitate gorabeheratsu hori egiaztatu ahal izan da hainbat azpienplegu-motatan, dela behar adina ordu ez izateagatik, dela Gizarte Segurantzaren araubidean desegokiro txertatzeagatik; esate baterako, "autonomo faltsuak" deiturikoen kasuan. Azpienplegu molde hori nahi gabeko autoenplegu gisa ere finkatu da: langile autonomoen araubidean sartzera behartutako langileak, nahiz eta, berez, inoren kontura lan egiten ari izan beharko liratekeen.

Bestalde, legez edo konbentzior ezarritako lanaldiaz harago lan egin behar izatea eguneroko errealitate orokortu bihurtu da, eta horrek eragin nabarmena izan du lan-merkatuaren prekarizazioan, lan-harremanaren bi funtsezko osagai ukitzen baititu: lan-denbora eta soldata.

BAI-Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuen arabera, Espainian besteren konturako langileek 2,28 milioi ordu estra egiten dituzte batez beste urtero; ordu kopuru hori nabarmen igo da krisia hasi zenetik, eta horien erdiak baino gehiago ordaindu gabe uzten direla uste da. Sindikatuek egindako kalkulu baten arabera, legezko edo hi-

tzartutako lanaldi arruntaren gainera egindako ordu horiek 4.500 lanpostutarako adinakoak lirateke gutxi gorabehera.

Aparteko orduen areagotze horrek berarekin ekarri du abusuz eta indiskriminatuki erabiltzea lanaldi partzialeko kontratuak, hainbestearino non gehiegizko lanaldiak ohiko jokamolde bihurtu baitira enpresetan. Sarri askotan, lanaldi partzialeko kontratuen atzean bene-benetako lan-esplotazio bat ezkututzen da, orokortu egin baita soldata partzial eta lanaldi osoko lana. Egindako eta ordaindu gabeko gainlanaldi horrek ondorio negatiboak ditu, langilearentzat ez ezik Gizarte Segurantzaren sistemarentzat eta foru erkidegoaren dirubilketarentzat ere, eta, ondorioz, gizarte osoarentzat.

Hortaz, lanaldiari, kontratuei eta Gizarte Segurantzaren txertatzeari dagozkien praktika horiei heldu nahirik Nafarroako lan-abusuen, ezkutuko ekonomiaren eta aitortu gabeko enpleguaren aurka borrokatzeko tresna gisa, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du Nafarroako Foru Komunitateko lan-abusuen aurkako kontrol-plan bat bultzatzea dezan gizarte-mintzakideen parte-hartzearekin, lehentasuna emanez langileen eskubideak urratzen dituzten iruzurrezko jokabideei, dela aldi baterako kontratu faltsuen nahiz lanaldi partzialeko kontratu faltsuen nahiz autonomo faltsuen nahiz bekadun faltsuen nahiz lege-araubidea betetzen ez duten ordu estren bitartezkoei.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du kanpainak egin ditzan, Nafarroako gizarte osoa sentsibilizatze aldera enplegu aitortugabearen eta ezkutuko ekonomiaren ondorio negatiboak buruz, bai eta horretara joz gero aplikatu daitezkeen zehapenei buruz.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du honako hauei lotutako datu guztiak argitaratu ditzan: gure Komunitatean dagoen ezkutuko ekonomia, eta ekonomia mota horren eragina kolektiboaren, sektoreen edo jardueraren arabera, bai eta eremu geografikoen arabera ere. Azpimarra jarriko da problematika horrek bereziki ukitzen dituen esparruetan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du Espainiako Gobernuari eska diezaion Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren jarduketak nabarmen gehitu ditzan Nafarroako Foru Komunitatean, lanaren eta Gizarte Segurantzaren esparruko araudi osoa betetzen dela kontrolatzeko; eta, halaber, horretarako behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak ugaritu ditzan.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuaren premiatzen du lanaren eta Gizarte Segurantzaren araudiaren esparruan arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapen irmoen berri jendurrean eman dezan, dagoen berriazko araudiak ezartzen duen moduan, ahal den neurrian etorkizuneko arau-hausleei horrelakoetarako asmoa kentzeko.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 18an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da kontratazio publikoaren jarraipenerako talde bat sor dezan, kontratu publikoak behar bezala betetzen direla zaintzeko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita kontratazio publikoaren jarraipenerako talde bat sor dezan, kontratu publikoak behar bezala betetzen direla zaintzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da kontratazio publikoaren jarraipenerako talde bat sor dezan, kontratu publikoak behar bezala betetzen direla zaintzeko.

Gauza arras nabaria da behar-beharrezkoa dela administrazio-klausulak txertatzea, ziurtatu nahi bada Administrazioak azpikontratutako obrak eta zerbitzuak enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa sustatuz emanen direla. Alabaina, eta asmoak asmo, sarritan ikusten dugu herri-lanen

nahiz bestelako zerbitzu batzuen lizitazioetako lan-baldintzek, lehiaketetako prezioak oso baxuak direnez, ez dutela bide ematen langileen kontratazioak baldintza duinetan egin daitezzen eta, are, hitzarmenek ezarritakoaren azpitik egiten direla.

Orain dela gutxi, Nafarroako zenbait sindikatuk jendaurrean salatu zuten Nafarroan eraikuntzaren sektorean “lege-haustek, abusuak eta lan-esplotazioa” gertatzen direla; esaten dutenez, “lansariari eta lanaldiari dagokienez hitzarmen kolektiboaren urraketa gertatzen ari da, bai eta iruzur fiskala ere”. Zehazki, sindikatu horiek diote lan egindako ordu bakoitzeko 7 euro ordaintzen ari direla, hitzarmenak 10,68 euroko saria ezartzen duen arren. Egoera hori –haiek diotenez– “Administrazioarentzako lanak egiten ari diren enpresa azpikontratatueta gertatzen da batik bat, eta ordezkariak sindikalik ez daukatetenan”.

Enpresei egindako esleipenetako azpikontratazio-kate osoan enpleguaren kalitatea eta kontratutako klausulen errespetua zaintzearen eta lan-araudia betetzen dela ziurtatzearen, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du kontratazio publikoaren jarraipenerako talde bat sor dezan, gizarte-eragileen eta Administrazioaren parte-hartzearekin, xede izanen duena zaintzea Nafarroako Gobernuak onetsitako kontratu publikoak behar bezala betetzen direla eta bermatzea baldintza-orrietan jasotako gizarte-klausulen arabera direla azpikontratutako enpresetan diharduten langileen lan-baldintzak.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 18an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Sustapen Ministerioa eta Renfe eta Adif enpresak premiatzen dira Tafallako tren geltokian arreta pertsonalizatuko zerbitzua mantentzeko eta zerbitzu guztien hobekuntza plan bat abian jar dezaten, eta Nafarroako Gobernua, berriz, Estatuarekin negoziatzea dezan Tafallako geltokiko tren zerbitzuak mantentzea eta hobetzea.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetu dadin Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Sustapen Ministerioa eta Renfe eta Adif enpresak premiatzen baitira Tafallako tren geltokian arreta pertsonalizatuko zerbitzua mantentzeko eta zerbitzu guztien hobekuntza plan bat

abian jar dezaten, eta Nafarroako Gobernua, berriz, Estatuarekin negoziatzea dezan Tafallako geltokiko tren zerbitzuak mantentzea eta hobetzea. Mozioa 2017ko urtarrilaren 23ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak kultur aniztasuna gure gizartearen ondarea dela aitortzen baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak kultur aniztasuna gure gizartearen ondarea dela aitortzen du; hori dela-eta, aniztasun horren kudeaketa demokratikoa egiteko konpromisoa hartzen du, Nafarroako kultur errealitate guztiak aintzat hartuak izan daitezzen eta herritar guztien eskubide guztiak eta aukera berdintasuna berma daitezzen.

2. Herritar guztiek dute beren hizkuntza propioa erabiltzeko eta beren kultura garatzeko eskubidea. Kultur aniztasuna Nafarroaren nortasun-ezaugarri bat da, eta erakundeei dagokie hori zaintzea, bereziki egoera minorizatuan daudenak; esate baterako, euskara.

3. Nafarroako Parlamentuak kultur aniztasuna kudeatzeko politikak bultzatu eta planifikatzeko konpromisoa hartzen du, bai eta ikuskera hori departamentu eta sail guztietan zeharkakotasunez jasotzekoa ere.

4. Nafarroako Parlamentuak aniztasunaren arloko ekintzak kultur eta gizarte eragileekin eta toki enitateekin taxutzeko konpromisoa hartzen du, bai eta xede gisa ezartzen ere kulturen arteko elkarrizketan, interakzioan eta elkarren onarpenean oinarritutako eredu batekin bizikidetasuna bultzatzea.”

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Javier Valdez kazetariaren erailketa gaitzesten baitu, Sinaloan gertatua.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Javier Valdez kazetariaren erailketa, bai eta Mexikoko hedabideetako langileek beren lana egitearen ondorioz jasaten dituzten eraso guztiak ere.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die Javier Valdezen eta Sonia Córdovaren familiei eta hurkoei, eta azken honi laster senda dadin opa dio.

3. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du biktimek eta haien familiek egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubidea dutela, eta Mexiko-

ko agintariak erantzukizunen bilaketan azken bururaino joan daitezen nahi du, beste batzuetan gertatu direnak bezalako inpunitate-egoerak ekidinez.

4. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du iritzi eta adierazpen liberako eskubidea ezartzen duen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 19. artikuluekiko bere konpromisoa.

5. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du gizarte global honetan giza eskubide unibertsalak zabaltzeko eta aldezteko bere konpromisoa.”

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitie Nafarroako kirol kudeaketaren arloko langileei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten die Nafarroako kirol kudeaketaren arloko langileei.

2. Nafarroako Parlamentuaren borondatea da kirol kudeaketaren arloko patronalaren eta langileen arteko lan-gatazka konpon dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak administrazio publikoei dei egiten die langileentzako lan-baldintza duinetan eta zerbitzuaren kalitatea bermatuz lizita daitezen kirol kudeaketaren arloko kontratuak.

4. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu sektoreko langileek egin nahi dituzten mobilizazioak.”

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuiorik bipil eta erabatekoena adierazten baitu EAJren Altsasuko egoitzan agertutako pintaketak direla-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere arbuiorik bipil eta erabatekoena adierazten du EAJ alderdi politikoaren Altsasuko egoitzan 2017ko maiatzaren 20aren goizean agertutako pintaketak direla-eta, eta onartezintzat jotzen du horrelakoak gertatzen jarraitzea, gizarte demokratiko batean kritika zile-

giaren mugez harago doan eraso bat baita, erakunde politiko baten aurka egina.

2. Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasuna adierazten dizkie ekintza horrek kalte-tutakoei”

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu Manchesterren maiatzaren 22an –astelehena– izandako gertakariak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu Manchesterren maiatzaren 22an –astelehena– izandako gertakariak.

2. Nafarroako Parlamentuak bere doluminak eta elkartasuna helarazi nahi dizkie zuzenean nahiz zeharka kaltetutako pertsona guztiei.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitateko herritar guztiak premiatzen ditu adierazpen honekin bat egin dezaten eta indarkeria terrorista arbuiatzeko eta biktimei elkartasuna adierazteko egiten diren ekitaldi guztietan parte har dezaten”

Iruñean, 2017ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Erriberarako airearen kalitatearen plan bat egiteari begira Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak darabilen aurreikuspenari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Erriberarako airearen kalitatearen plan bat egiteari begira Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak darabilen aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentariaren elkarrekin parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordean kontseilariak ahoz erantzun dezan.

2016an Erribera izan da, berriz ere, Nafarroan airearen kalitateari okerreneko eskualdea, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak berak prestatutako txosteneko datuen arabera. Kutsadura horren arra-

zoia ozono-maila altua izan da. Ozono-mailarik altuenak Funesko eta Tuterako kontrol-estazioetan erregistratu dira. Izan ere, legeak ezartzen duen muga 27 egunetan gainditu zen Funesen, eta 24 egunetan Tuteran.

Garbi dago ozonoaren arazoa konplexua dela, nitrogeno oxidoen eta konposatu organiko hegazkorren jatorri lauso bat eta baldintza klimatikoak elkartzen direlako. Baina egia da, aldi berean, ozono troposferikoaren bitarteko kutsadura lehen mailako osasun-arazo bat dela.

Airearen Kalitateari eta Atmosferaren Babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legeak ezartzen duenez, "autonomia-erkidegoek, airearen kalitateko helburuak lortze aldera, gutxienez ere airearen kalitatea hobetzeko planak ezarriko dituzte."

Era berean, 102/2011 Errege Dekretuak ezartzen duenez, "Zona edo aglomerazio jakin batzuetan aireko kutsagai-mailek edozein mugabali edo balio objektibo gainditzen badute [...] autonomia-erkidegoek airearen kalitateko planak onetsiko dituzte zona eta aglomerazio horietarako."

Galdera:

Zer aurreikuspen darabil Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak, Nafarroako Erriberarako airearen kalitatearen plan bat egiteari begira?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 16an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, “beren gain jartzea” neurrirako laguntzen 2016ko deialditik kanpo gelditu diren nekazari gazteei buruzkoa.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, “beren gain jartzea” neurrirako laguntzen 2016ko deialditik kanpo gelditu diren nekazari gazteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Mari Carmen Segura andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nekazari eta abeltzain gazteentzako “beren gain jartzea” neurrirako laguntzen 2016ko deialdiak, zeina apirilaren 6ko 460/2017 Ebazpenaren bidez ebatzi baitzen, kanpoan utzi ditu berriz ere deialdira aurkeztutakoen % 40.

Norgehiagoka bidezko deialdi horretara 156 gazte aurkeztu ziren, eta horietako 63 gelditu dira diru-laguntzarik gabe.

2015eko deialdian 90 gazte gelditu ziren diru-laguntzarik gabe, eta Nafarroako Gobernuak esan zuen 2016ko deialdia egin zela kanpoan gelditu ziren gazte horiengan pentsatuta batez ere, baina, argitaraturiko deialdiaren ondorioz, gertatu dena izan da aurreko deialditik kanpo gelditu ziren 90 gazte horietatik gehienak gelditu direla kanpoan oraingoan ere.

Zer-nolako konpentsazioa emanen zaie deialditik kanpo gelditu diren 63 nekazari gazte horiei? Eta, batez ere, zer egingen duzue zure Gobernuak “beren gain jartzea” neurrirako diru-laguntzarik gabe bigarren aldiz utzi dituen nekazari gazte horiekin?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura Moreno

Galdera, errepide-obra berria hasteari dagokionez Gobernuak darabilen aurreikuspenari eta Nafarroako Errepide Plan berri bat egiteari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, errepide-obra berria hasteari dagokionez Gobernuak darabilen

aurreikuspenari eta Nafarroako Errepide Plan berri bat egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Gauza arras jakina da Nafarroan ez dela errepide berririk eraikitzeke obrarik egin A-12a Logroñorekin lotzeko itxitura amaitu zenetik. Obra hartan, Nafarroak 20 milioi euro baino zertxobait gehiago jarri zituen, batik bat 2012tik 2015era bitarte. 2016ko eta 2017ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan ez da euro bakar bat ere aurreikusi xede horretarako.

Halere, eta hori ere gauza jakina dela uste dugu, badira beharizan batzuk berriz ere gaurkotasunekoak direnak, susperraldi ekonomikoaren ondorioz trafikoa areagotu baita. Parlamentu honek bere garaian onetsitako Nafarroako Errepideen 2010-2018 Plana laster asko geratu zen zaharkituta krisi ekonomikoaren erruz, eta haren

indarraldia hurrengo urtera bitartekoa besterik ez da.

Hori dela-eta, honako hau eskatzen dut:

Gai horri buruzko honako galdera hau onartzea eta izapidetzea, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Gobernuak zer aurreikuspen darabil legegintzaldia bukatu bitartean errepide-obra berriak egiteari dagokionez? Zer diru-kopuru aurreikusi du xede horretara bideratzea 2018ko eta 2019ko aurrekontuetan?

- Lau alderdien arteko akordioan horri buruzko ezer jasotzen ez bada ere, asmorik al daukazu Nafarroako Errepideen 2010-2018 Plan indarduna berrikusteko, halatan bertako aurreikuspenak birformulatu eta bizi dugun garaia egokituriko inbertsio-proposamen bihurtze aldera? Zer denbora-aurreikuspen darabilzu, halakorik baldin badaukazu, plan berri hori aurkezteari begira?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, atal- eta bulego-burutzak izendatzeko irizpideei buruzkoa.**SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkeztutako galdera, atal- eta bulego-burutzak izendatzeko irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Sergio Sayas López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Kontseilariaren ustez, arrazoizkoak al dira atal- eta bulego-burutzak izendatzeko irizpideak?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 18an.

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

Galdera, larrialdietako R1-ek laguntza-zerbitzua mediku ondokoak balira bezala emateari buruzkoa.

SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkeztutako galdera, larrialdietako R1-ek laguntza-zerbitzua mediku ondokoak balira bezala emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Sergio Sayas López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Larrialdietako R1-ek zergatik ematen dute laguntza-zerbitzua mediku ondokoak balira bezala?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 18an.

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

Galdera, Nafarroan trenbide-azpiegitura hobetzeari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan trenbide-azpiegitura hobetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Lau alderdiko Gobernu heldu zenetik Nafarroan trenbide-azpiegituraren hobekuntzari buruz dagoen ageriko nahasmena ikusita, eta Gobernu-

ko bazkideek arlo horretan erakusten duten iritzi-desberdintasuna gogoan, eskatzen dut:

Gai horren honako alderdiei buruzko galdera hau onartzea eta izapidetzea, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Gobernuaren ustez, Espainiako herritarren parte handi batek jada daukan eta laster beste batzuek –esate baterako, Euskal Autonomia Erkidegoko gure bizilagunek– izanen duten bidaiarientzako trenbide-konexioaren maila bereko bat izan behar al dugu nafarrok?

- Baiezkoan, Nafarroako Gobernuak nahi eta aldeztu al du trenbide-plataforma berri bat eraikitzea, oraingotik bereizia, Zaragozatik Euskal Autonomia Erkidegoraino Iruñetik igarota joanen dena?

- Legebiltzar honetan adierazitakoaz bestela, egungo proiektuan eta egungo hitzarmenean jada aurreikusita dago azpiegitura berriak bidaiarirahiz salgai-trafikoa hartu ahal izatea, europar zabalerarekin eta abiadura handikotzat jotzen den gehieneko abiadurekin, eta eginda dauden bi azpizatiek nahiz gainerako oinarritzko proiektuek ere beste horrenbeste aurreikusten dute. Onartzen al duzu hori horrela dela?

• Hori al da legegintzaldi honetan Estatuari eskatu eta harekin hitzartzeko asmoa duzun soluzioa?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, María Forcada Fundazio publiko-pribatuaren finantzaketarako Nafarroako Gobernuak darabiltzan finantzaketa publikoko bideei buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, María Forcada Fundazio publiko-pribatuaren finantzaketarako Nafarroako Gobernuak darabiltzan finantzaketa publikoko bideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Gazteriarako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zeintzuk izan litezke Nafarroako Gobernuak María Forcada fundazio publiko-pribatuaren finantzaketa publikorako erabil litzakeen bideak?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, Braille sisteman editatutako funtsak areagotzeari dagokionez Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak egindako jarduketei buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, Braille sisteman editatutako funtsak areagotzeari dagokionez Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak egindako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Batzordean ahoz erantzun dakion.

Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak zer egiten du, braille sisteman (pertsonek itsuentzako irakurketako eta idazketako ukimen-sisteman) editatutako funtsak areagotzeari dagokionez?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernua zer egiten ari den Orreagako Kolegiataren lana errazteko eta bertako ostatuaren arazoa konpontzeko.

GUZMÁN GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernua zer egiten ari den Orreagako Kolegiataren lana errazteko eta bertako ostatuaren arazoa konpontzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak batzordean ahoz erantzun diezaion:

Orreagako Kolegiatako priore Francisco Javier Izco jaunak berriki iragarri du ostatuaren erabilera mugatzeko eta instalazioen parte bat ixteko asmoa duela, bertako instalazioak antza denez zeuden zuzenbide-linboa kontuan hartuta.

Done Jakue Bideak Nafarroako Foru Komunitatean kultura eta turismo aldetik daukan garrantzia ikusita, eta, zehazki, neurri horrek Kolegiataren ingurunean izan lezakeen eragina ikusita, egoera normalizatzea komeniko litzateke.

Nafarroako Gobernua ezer egiten ari al da Orreagako Kolegiataren lana errazteko eta arazoa konpontzeko?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 18an.

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Nafarroan kirol kudeaketaren arloko langileek bizi duten gatazkari buruzkoa.

GUZMÁN GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan kirol kudeaketaren arloko langileek bizi duten gatazkari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak batzordean ahoz erantzun diezaion:

UGT, CCOO, ELA eta LAB sindikatuak burubelarri dabiltza kirol kudeaketako enpresen sektorearen greba baterako deialdian, zeinen ordezkariak egonak baitira jada Nafarroako Parlamentuan, beren problematika azaltzeko lan-bilkura batean.

Antza, gatazka nahiko enkistatuta dago, eta ondorio aurreikus ezin izan ditzake, langileen soldatak ez baitira oso oparoak, halako moduan non kasu askotan ezin baitiote ekin beren ekonomia are gehiago ahulduko lukeen protesta bati.

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Nafarroan kirol kudeaketaren arloko langileek bizi duten gatazkan bitartekari aritzeko?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, jakitekoa zer esan nahi duen Hezkuntzako kontseilariak galdera parlamentario bati erantzutean adierazten duenean espresuki aipatzen duela emandako informazioari buruz hartzaileak isilpekotasuna gorde behar duela eta bakar-bakarrik eginkizun parlamentarioan erabil dezakeela.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa zer esan nahi duen Hezkuntzako kontseilariak galdera parlamentario bati erantzutean adierazten duenean espresuki aipatzen duela emandako informazioari buruz hartzaileak isilpekotasuna

gorde behar duela eta bakar-bakarrik eginkizun parlamentarioan erabil dezakeela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zer esan nahi du Hezkuntzako kontseilariak, galdera parlamentario bati erantzutean adierazten duenean espresuki aipatzen duela emandako informazioari buruz hartzaileak isilpekotasuna gorde behar duela eta bakar-bakarrik eginkizun parlamentarioan erabil dezakeela?

Corellan, 2017ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, eremu ez-euskaldunean D ereduan matrikulatzeari buruz informatzeko xedez ikastetxeetan egindako bileretan parte hartu duten pertsonen buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, eremu ez-euskaldunean D ereduan matrikulatzeari buruz informatzeko xedez ikastetxeetan egindako bileretan parte hartu duten pertsonen buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta UPN talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak jakinarazi duenez, eremu ez-euskaldunean D ereduan matrikulatzeari buruz informatzeko xede hutsez ikastetxeetan egindako 14 bileretan parte hartu zuten honako hauek izan ziren:

Hezkuntza Departamentukoak:

Hasier Morras Aranoa. Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua.

María Amparo Antoñana Ábagos. Euskara Ataleko burua.

María Ángeles Iriarte Azpiroz. Euskararen Sustapenaren eta Didaktikaren Bulegoko burua.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentukoak (Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutua):

Paula Kasares Corrales. Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendaria.

Eduardo Aldasoro Lecea. Azterlan eta Plangintza Ataleko burua.

María Esther Mugertza Imaz. Euskara Sustatzeko Ataleko burua.

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzuteko:

– Bi departamentuetako kargudun horietatik, nortzuk joan ziren bileretara?

– Gobernuko gainerako departamentuetako inork parte hartu al zuen bileraren batean?

– Zuzenean ukitutako ikastetxeen kanpoko inork parte hartu al zuen bileraren batean?

– Gorago aipatutako departamentuetako kargudunen batek parte hartu al zuen Gobernuaz kanpoko elkarteek edo kolektiboek gai horri buruz antolatutako beste bilera edo solasaldiren batean? Nork? Nork gonbidaturik? Non? Noiz?

Corellan, 2017ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán-Higuera

Galdera, Soria-Castejón trenbide-tartea berrirekitzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Soria-Castejón trenbide-tartea berrirekitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

Aurtengo hasieran Soriako Diputazio Probintzialak, osoko bilkuran eta bertan ziren talde guztien adostasunarekin, mozio bat onetsi zuen, Espainiako Gobernuari premiazten zuena Gaztelako eskualde horretako trenbidea biziberritu dezan.

Adierazpen horretan jasotzen ziren gaietako bat zen "Soria-Castejón tartea berehala berrirekitzea, era horretan lotura berriak ahalbidetzeko, tren bitarteko salgai-trafikoa eta bidaiari-zerbitzua berreskuratze aldera..." Proposamenaren ustez, ekimen hori funtsezkoa da komunikazioa hobetzeko, maiztasun eta aukera gehiagoren bidez, Madril, Zaragoza eta Iruñarekin, besteak beste.

Castejón-Soria tartea Castejón-Torrallba lineari dagokio, zeinak lotura duen Madril-Bartzelona linearekin eta Zaragoza-Bilbo nahiz Castejón-Altsasarekin, hurrenez hurren, bi herri horietako bakoitzean. Linea horrek Nafarroako, Errioxako eta Gaztela-Leongo erkidegoak zeharkatzen zituen, eta 1996an itxi zen bidaiarien trafikorako, nahiz eta ez den bertan behera utzi, burdinbidea ia osorik mantendu baita, zeharkatzen dituen herrietan izandako zenbait jarduketa salbu. Jarduketa horiek ez diete eragiten azpiegiturari begira sustatzen ahal diren balizko ekimenei.

Bide bakarreko trazadura da, elektrifikatu gabea. 2015era arte Interes Orokorreko Trenbide Sareko zati bezala zegoen katalogatuta. Sarea Sustapen Ministerioraren menpeko Administrador de Infraestructuras Ferroviarias-ADIF entitate publikoarena da.

Zalantzarik gabe, bide hori, urte askotan tren-trafikoa izan zuena, aukera berri eta ona da besteak beste enpresa, turismo eta kulturaren arloko jarduerak egin daitezen zeharkatzen dituen herrietan, Nafarroan zein Nafarroatik kanpo.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

– Zein da Gobernuaren irizpidea Soriako Diputazioaren proposamen horri dagokionez?

– Gobernuak kontuan hartu al du Espainiako Gobernuari jarduketarik proposatzea, hura baita azpiegituraren arduraduna, Nafarroako, Errioxako eta Gaztelako herrien arteko komunikazio bide horretarako?

– Gobernuak egokitzen jotzen al ditu bestelako erabilera batzuk (bide berdea, turistikoa, kulturala, kirolekoa, eta abar), errailak mantenduta nahiz horiek behin betiko kenduta, Nafarroako beste toki batzuetan gertatu den bezala?

Corellan, 2017ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Tulebrasko eta Barillasko ikasleen garraioari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tulebrasko eta Barillasko ikasleen garraioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Cascanteko ikastetxe publikoan lanaldi jarraitua ezarriko da 2017-2018 ikasturterako, Hezkun-

tza Departamentuak emandako jarraibideak betez.

Ikastetxe horretara Tulebras eta Barillas herrietatik hogeit hamar ikasle inguru joaten dira, Cascanteko ikastetxe publikoari atxikita daudelako.

Horien garraioaren ardura Hezkuntza Departamentuarena denez, honako galdera hauek aurkezten dira:

Nola antolatuko du Hezkuntza Departamentuak Tulebrasko eta Barillasko ikasleen garraioa, Cascanteko ikastetxe publikoan ezarriko den lanaldi jarraituarekin bateragarri izan dadin?

Departamentuaren ustez egokiena al da familiei ahobatezkotasuna eskatzea herrietara itzultzeko ordutegia ezartzerakoan?

Departamentuaren ustez egokia al da nahikoa izatea familia bakar bat gainerakoekin bat ez etortzea, horiek guztiak baldintzatuzko, ikastetxean lanaldi jarraitua portzentaje jakin batzuen bidez ezarri dela ikusirik?

Nola bermatuko du Departamentuak gaur egun ematen den jantoki zerbitzua?

Corellan, 2017ko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Secretariado Gitano Fundazioak ijitoen herriaren historia eta kultura hezkuntza-curriculumean jaso izan dadin proposatutako ekimenari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Secretariado Gitano Fundazioak ijitoen herriaren historia eta kultura hezkuntza-curriculumean jaso izan dadin proposatutako ekimenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Hezkuntza Departamentuak zer iritzi du Secretariado Gitano Fundazioak hezkuntza-curriculumean ijitoen herriaren historia eta kultura jasotzeari buruz proposatutako ekimena dela-eta?

– Departamentuak inolako ekimenik abiarazi al du gai horri dagokionez?

Corellan, 2017ko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa daukatela frogatzen ez duten irakasleak bitartekoen zerrendetatik kanporatzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa daukatela frogatzen ez duten irakasleak bitartekoen zerrendetatik kanporatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

Nafarroako Aldizkari Ofizialean 2017an argitara eman zen Hezkuntza Departamentuko Giza Balia-bideen Zerbitzuko zuzendariaren apirilaren 12ko 1081/2017 Ebazpena. Horren bidez, prozedura ezartzen da Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoei dagozkien indarreko zerrendetan agertzen diren izangaien Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan

aipatzen den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa frogatzeko, salbu eta prestakuntza frogatu dutenen edo ofizios aitortu zaien kasuan. Halaber, ebazpen berean xedatzen da ezen ezartzen den prozedurari jarraikiz hori frogatzen ez dutenak 2017-2018 ikasturtean zerrendetatik kanporatuak izanen direla.

Ebazpenak eranskin bat dakar, ukitutako 3.500 irakasle biltzen dituena.

Horrenbestez, honako galdera hauei idatzizko erantzuna ematea eskatzen dugu:

– Hezkuntza Departamentuak baloratu al du zenbat irakasle geratzen ahal diren zerrendetatik kanpo, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa ez frogatzeagatik?

– Hezkuntza Departamentuak baloratu al du bitartekoen zerrenda batzuk irakaslerik gabe geratu ahal izatea?

– Hezkuntza Departamentuak baloratu al du zerrenda huts horiek betetzerakoan prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa duten irakasleak ez aurkitzeko arriskua?

– Hezkuntza Departamentuak baloratu al du zer egoeratan dauden unibertsitate-titulaziorik izan ez eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan irakasten duten irakasleak, baliokidea den ikastaro pedagogiko eta didaktikoa Nafarroako ikastetxe publiko batean egiteko aukerarik ez dutenak?

– Hezkuntza Departamentuak asmorik al du ebazpenaren betetze-epearen luzamendurik ezartzeko, ikusirik zer egoera sor litekeen?

Corellan, 2017ko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, lan-prekarietatea eta ezbehar-tasa murrizte aldera Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak hartutako neurri buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera lan-prekarietatea eta ezbehar-tasa murrizte aldera Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak hartu-

tako neurri buruzkoa zen, eta 2017ko maiatzaren 3ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Foru parlamentarien eta Parlamentuaren zerbitzuko langileen bizi- eta istripu-aseguruak kontratatze aldera Nafarroako Parlamentuak ordaindutako diru-kopuruen tributazioa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 22an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2017ko martxoaren 20ko Nafarroako Parlamentuko Mahaiko erabakiaren bidez, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, Nafarroako Zerga Ogasunari kontsulta egin zitzaion foru parlamentarien zein Parlamentuaren zerbitzuko langileen bizi- eta istripu-aseguruak kontratatzearen Parlamentuak ordaindutako zenbatekoei PFEZa kargatzeari buruz. Horretarako aipatu aseguruak kontratatzeke preskripzio teknikoen agiria bidali zen, bai eta Parlamentuaren zerbitzuko langileen zein foru parlamentarien bizi- eta istripu-aseguruen kontratuak ere.

Nafarroako Zerga Ogasunak kontsulta horren erantzuna igorri du 2017ko maiatzaren 11n.

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, Nafarroako Zerga Ogasunaren

erantzuna ikusita, 2017ko maiatzaren 18an Zerga Ogasunaren interpretazioa onartzea proposatzen duen txosten bat eman du.

Horiek horrela, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuari agintzea bere jarduna, foru parlamentarien eta Legebiltzarreko langileen bizi- eta istripu-aseguruen primei dagokienez, Zerga Ogasunak emandako irizpideei egokitu dezan; hau da, ordaindutako primak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako diru-sarrerari loturiko gauzako ordainketatzat har ditzan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza